

Diodan, bukatzeko, Lafonek, Schuchardt-ek esana jasoaz, bi aditzok iñoiz bat izan zitezkeala onartzen duela. Ni neu ez nator uste horrekin bat, baiñan nolana ere Leizarragarentzat bi zirala argi eta garbi dago.

Arestik, beraz, bi aditz nahastekatzen dizkigu, eta hortik.

DAXEKA, ZAXEKAN eta ZAXETEN

emateke utzi eta Leizarragak ez dakarren ZATXETEN sartu izatea.

Dena dela, bere horren gisako lanak onuragarri dirateke, euskera-gaietan noiznahi sortzen zaizkigun gandoak hastandu eta zoko illunak argitzeko bultzagarri.

SUA IZTUPARI BEZALA GATXETZA GU EUSKARARI

Gabriel Aresti

Oregi jaunak “off-side” hartu nahi ukan nau, edo hartu egin nau, berdin dit. Mila eta hirurehun eta gehiago flexio berbal dituen katalogazio batetan hiru huts aurkitu dizkit. Hori gaitikeko begirada batetan, ezen sakonkiago behatu balu, gutiezez hamar aurkituko balizkidake, edo hamahiru.

Gainera Lafon jaunak lehenago egin zuen lan hori. Baina isiltzen edo ignoratzen du Oregi jaunek, Lafonek baino lehenago lan ber-bera egin zuela Dodgsonen. Beraz, infernu ber batetan erretzeko gara biak.

Oregi jaunarentzat, Lafon jaunarentzat bezala, gauza bat da “datxeka” eta beste bat “daxeka”, lehena gaztelaniazko “agarra” eta bestea “arde”. Bai eta, seguru aski, Leizarragarentzat ere. Axularrentzat ez. Ez eta, enetzat ere.

Hala eta guztiz ere, ene lanean gauza bat zegoen objetibo, eta beste bat subjektibo. Objektiboa flexioen bilaketa zen, eta subjektiboa haien klasifikazioa. Arrazoi bakar bategatik klasifikatu

nituen bi tipoak batera: Leizarragak berbo hori, edo hoik, flexioetatik aparte erabiltzen ez duelako: Bakarrik haien faktitiboak: “eraichequi”, “eratchequi”, “iechequi”, “iraichequi” eta “irachequi”, beti lehen aipatutako bigarren zentzuan, eta deribatu nominal bat: “etchequidura”, hau lehen zentzuan.

Leizarragak bai, CH-dun flexioak Oregi jaunak aipatzen duen zentzuan erabiltzen ditu, salbo kasu batetan. Oregi jaunak, kasu honetako difikultatea errazteko, grekora jo nahi du. Ez dut joera horren premiarik ikusten, mundu guztiak jakin behar baitu (zeren hala probatu baitzuen Buonaparte printzipeak: “Le Verbe Basque en Tableaux”, pág. 83), Leizarragak bere tradukzioak frantzesetik egin zituela.

Enezat, berriz diot, berbo bakar bat dago honetan “atxeki” (edo “etxeki”). Gaztelaniaz *prender* erranen nuke. Eta berdin datxeka iztupari sua edo orratz bat edo esku bat, berdin datxeka Oregi jaunari ama euskararen ganako amorioaren sua edo eztarritik gorbata dotorea.

Baina hizkuntza dialektalizatu egin da, eta suaren atxekitzeari modu batetan erraten hasi zen, eta gainerako gauzen atxekitzeari bestela. Honela ailegatu gara Bizkaian erraten ditugun “eskegi” eta “isitu” hauetara, giputzei hain nardagarri zaizkien hauetara.

Beraz bekatu bekar bat aitortu behar dut: Hizkuntza beridiomatizatu nahi ukana.

Neure eskerrik beroenak errendatu behar dizkiot Oregi jaunari “off-side” hau seinalatu didalako, baina ni ez nintzen aritzen footballlean, rugbyan baizik. Eta erregelak diferente dituzte jokook.